evaluar alternativas, que incluso pueden derivar en una mejora general, desde el punto de vista ambiental (pantallas vegetales, pasos de agua bajo la plataforma, etc.) que en su día no se efectuaron. Actuaciones de este tipo, así como las derivadas del riesgo o molestias para la población en zonas urbanas (por ejemplo una mejor integración visual y permeabilidad en el tramo por el interior de Gernika) y tender hacia la eliminación de pasos a nivel, evitarían mayores impactos por la intensificación del servicio.

## — **Mejoras en el servicio de ferrocarril.**

Servicios de trenes directos desde Bilbao; duplicar frecuencia de trenes actuales (actuación recientemente implantada, con trenes cada media hora) y potenciación de tranvías entre estaciones intermedias

## — **Potenciación del tráfico de mercancías por ferrocarril.**

Para reducir el tránsito por carretera. Como ejemplos, el nuevo ramal de conexión en el puerto de Bermeo y otros posibles ramales (v.gr. zonas industriales), además de la disposición de tracción más potentes.

## — **Desarrollo de la intermodalidad de medios de transporte.**

Elaboración de un análisis y propuestas para los medios existentes o nuevos medios de transporte, incidiendo en la coordinación de horarios (no competencia como en la actualidad que deriva en horarios coincidentes) y aprovechamiento de las posibilidades de intermodalidad en especial para el acceso a las playas. Opciones como aparcamiento disuasorio en Gernika, lanzaadera con autobuses articulados, ferrys, comunicación con el ferrocarril de la margen izquierda, etc.

## — **Fijación de trazas para reservas de nuevos canales viarios.**

Estudios técnicos para, de cara a su disposición futura, establecer reservas de suelo para ferrocarril u otros medios de transporte. Por ejemplo en municipios de la margen derecha de la ría.

**11. URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAKO ETIKETA KALITATEZKO NEKAZARITZA DUTEN PRODUKTUEI JARTZEA, BAITA LANDATZEKO MODU BATERAGARRIA INGURUGIROAREKIN ERABILTZEN DUTEN PRODUKTUEI ERE**

**11. INCORPORACIÓN DE LA PROCEDENCIA DE LA RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI AL ETIQUETADO DE LOS PRODUCTOS AGRÍCOLAS CON DISTINTIVOS DE CALIDAD Y MÉTODO DE CULTIVO AMBIENTALMENTE COMPATIBLE**



**Deskripzioa-justifikazioa**

Nekazaritzako elikagaien kalitatezko produktuek eskaintzen dituzten merkaturatze hobariei, probetxu ate- ra beharko zaie, zenbait produktutarako (kalitatezko eta nekazaritza ekologikoa erabiliz landutako produktuak) E.A.E.-an dauden marken nahiz kalitate bereizgarrien bidez. Berizgairri horien sustapen ekintzak, berriz, Urdaibaien egon daitezkeen produkzioak garatzeko erabili beharko dira. Bestalde, bateratu egin beharko dira bereizgarriak (kalitatezko labelak eta jatorri-izendapenak) kontsumitzailea nahasiko duten bereizgarri berezik ez sortzeko.

Biosfera Erreserbako irudiaren alde onak aprobetxa- ztea, horiek estu lotuta baitaude merkatuko joerekin (ka- litatea, naturaltasuna). Nekazaritzako joera berriak eta produkzio teknika berriak kalitate handiko produktuak

**Descripción-justificación**

Aprovechar las ventajas de comercialización que ofrecen los productos de calidad agroalimentaria a través de las existentes marcas y distintivos de calidad en la CAPV para productos de calidad y de agricultura ecológica. Las acciones de promoción de dichos distintivos se deben aprovechar para desarrollar las producciones que se puedan dar en Urdaibai. La incorporación correspondiente a la procedencia se hará de forma consensuada con los responsables de los mismos (Labelles de Calidad; Denominaciones de Origen), de forma que no generen nuevos distintivos identificativos que confundan al consumidor.

También se persigue aprovecharse de las ventajas de imagen derivadas de la Reserva de la Biosfera y que conectan con las tendencias del mercado (calidad, naturalidad). Las nuevas tendencias en la agricultura y en

lortzeko dira; horiek errespetu ahalik eta handiena izango dute ingurugiroarekin, eta naturako espazioa zainduko dute. Ikuspegi horretatik begiratuz, gure ohiko produktuak egokiak dira; nekazaritzako azpisektore desberdinan ingurua errespetatzen dituzten teknikak erabilita lortzen dira. Horrela, gure inguruaren aukerak eta baldintzak aprobetxatu ahal izango dituzte. Egoera onartuta, aukerak aprobetxatuta, eta lerro beretik jarraituz, komenigarria da nekazaritza ekologikoko teknikak gehiago sartzear, baita abeltzaintza ustiapen hain intentsiboak ez egitea ere. Horrela, eskaria handitu ahala, bete egingo da (nekazaritza ekologikoko produktu ezaunak); aurrera egiten duten irizpideetara egokitut beharko da (irizpideok laguntzen orientazioan islatzen dira), abeltzaintzaren erabilera egokiei dagokienez. Urdaibaien laborantzen eta betiko erabileren mantenu nahiz hedadurak (Biosfera Erreserbaren helburuetako bat) sinergia handia du proposamen honekin. Txostenek (E.K.E.G.-a eta E.A.E.-ko Lurralte Antolaketari buruzko Gidalerroen Lurralte Egitamu Sektorialak) nekazaritza interes handiagoa duten lurzoruen erabilera zehazten dute; hori dela-eta, bistan dago babesteko alde edo eremu bakoitzerako interes handiena dutenak garatu behar direla. Nekazaritza erabilera errentagarritasuna handitzeak biztanleguneen ingurueta landaketak egotea erraztu dezake (Nabarniz, Arratzu...); lurzoru interesgarriak dira: bertara iristeko errazak dira eta paisajea berriro baloratzeko aukera eskaintzen dute, ohiko erabileren arabera (baratzea, fruitarbolak, etab.).

Hori lortzeko, jarduketa kateatuen sekuentzia bat ezarri behar da; sekuentzia hori, berriz, merkataritzaren ikuspegitik komenigarrienak diren laborantzak aurkituta hasten da. Horiek aukeratu eta gero, bertako abantailak aprobetxatu beharko dira (izena, produkzio eredu batzuk...), gaitasuna indartzea eta prezio hobeak lortzea. Estrategia hau zuzen lotuta dago hurrengoarekin (transformatzeko eta merkaturatzeko bideak).

## Garapen proposamenak

### — **Urdaibaiko produktuak nekazaritzako elikagaien kalitatezko produktuen artean sartzea.**

Aprobetxatu egin beharko dira Biosfera Erreserbak dituen onurak eta geroko merkatuaren joerak (kalitatearen eta osasungarritasunaren aldekoa izango da). Nekazaritzako elikagaien kalitate bereizgarria duten eta antolaturiko merkaturatzera nahiz produkzio egituren azpian dauden produktuak (esaterako, Gernikako Piperra,

las técnicas de producción van encaminadas a la obtención de productos de máxima calidad por medio de la utilización de medios y técnicas de producción lo más respetuosas posibles con el medio ambiente y la conservación del espacio natural. Bajo esta óptica encajan nuestros productos tradicionales que se obtienen siguiendo estas técnicas respetuosas en distintos subsectores agrícolas, de aquí el interés que pudieran aprovechar la potencialidad de nuestro entorno y nuestras condiciones. Además de asumir la situación y aprovechar estas oportunidades, y avanzando en la misma línea, conviene incrementar la introducción de técnicas de agricultura ecológica, así como de desintensificación en aprovechamientos ganaderos, preparándose para satisfacer este nicho de demanda según vaya creciendo (productos de agricultura ecológica reconocibles como tales) en el primer caso, como acomodarse a los criterios que progresan (y que se reflejan en las orientaciones de los ayudas) en cuanto a usos ganaderos acordes. El mantenimiento y extensión de los cultivos y usos tradicionales en Urdaibai, uno de los objetivos de la Reserva de la Biosfera, guarda evidente sinergia con esta propuesta. Los distintos documentos tales como el P.R.U.G. y los Planes Territoriales Sectoriales de las Directrices de Ordenación Territorial de la C.A.P.V. definen ya los usos y aprovechamientos en los suelos de mayor interés agrario: por ello es obvio desarrollar aquellos que tengan un mayor interés para cada zona o área determinada a proteger. El incremento de la rentabilidad en los usos agrícolas puede favorecer el mantener ocupados con cultivos el entorno de núcleos de población (v.gr. Nabarniz, Arratzu...), suelos interesantes por su accesibilidad y posibilidad de revalorización paisajística según su uso tradicional (huertos, frutales, etc.).

Para lograrlo es preciso establecer una secuencia de actuaciones encadenadas, iniciándose con la detección de los cultivos más recomendables desde el punto de vista comercial. Una vez seleccionados, se trataría de aprovechar las ventajas locales (nombre, ciertos métodos de producción...) para reforzar esta capacidad y lograr mejores precios. Esta estrategia conecta directamente con la siguiente línea de actuación (medios de transformación y comercialización).

## Propuestas de desarrollo

### — **Incorporación de la procedencia de Urdaibai a los Productos de Calidad Agroalimentaria.**

Es preciso aprovechar las ventajas derivadas de la Reserva de la Biosfera y las tendencias del mercado futuro, favorable a la calidad y salubridad. Algunos de los productos ya tienen, por otra parte, sus distintivos de calidad agroalimentaria y están bajo estructuras de producción y comercialización ya organizadas como pue-

Gernikako Indaba, Euskal Baserria, Bizkaiko Txakolina-ren Jatorri-izendapena, Bizkaiko Sagardoa, Nekazaritzako Produkzio Ekologikoen Euskal Kontseilua eta abeltzaintzako labelak), osatu eta errespetatu egin beharko dira. EEE/2078 araudia aplikatuz, Urdaibaiko produktuek lerro orokorretan jasotakoa bete ahal izango dute; gainera, produktu horiek aukera izango dute ber-tan merkaturatzea erraztuko duen beste bereizgarri bat erabiltzeko.

## — **Nekazaritza ekologikoa sustatzea.**

Urdaibai Euskal Autonomia Erkidegoko Biosfera Erreserba bakarra da; hori dela eta, lekurik egokienna da nekazaritza ekologikoa sustatzeko. Horretarako, berriz, teknika horri loturiko proiektuak eta berorren bidez lorturiko produktuak bultzatzu beharko dira.

## — **Sektoreari aurreko lerroak betetzeko heziketa ematea.**

Beharrezkoa da aurreko lerroak aplikatzeko; izan ere, baserritarren pentsaera aldatu egin behar da (ingu-runearekiko bateragarritasuna, eta lankidetza, transformaziorako eta salmentarako); halaber, jarduera horretan hasten direnak ere hezi egin behar dira. Bestalde, beharrezkoa da biztanle talde zehatzetan (emakumeak, gazteak etab.) izan daitezkeen beharrizanak ezagutzea, bai sektorearen multzoari zuzenduriko hezkuntzan par-tehartze handiagoa izateko, bai beharrizanotarako ikastaro, mintegi nahiz topaketak antolatzeko.

## — **EEE/2078 dirulaguntzei buruzko araubidea apli-katzea, zehazturiko produktuen eta dirulaguntza hartzen duen pertsonaren arabera.**

EEE/2078 arautegia erabiltzea; horren arabera, le-hentasuna emango zaie naturarekin bateragarriak diren produkzioei eta produktore profesionalei. 1996tik hona, Bizkaian nekazaritza inguruko egitarau bat garatzen ari dira, aurrelik aipaturiko araudian oinarrituta, eta egitarau horrek Urdaibai ere barnean hartzen du. Sustatze neu-rrien helburua bertako abere-arrazak zaintzea, nekazaritza produkzio ekologikoa sustatzea, erabilera publiko-rako nahiz aisiajdirako lurak kudeatzea, mendiko larreak zaintzea, baserriaren paisajea zein ingurua zaintzea eta, azkenik, Gernikako itsasertzeko padurak nahiz zelaiak zaintzea da. Neurri horiek guztiak Urdaibaien aplika daitezke. Erabilera publikorako lurak kudeatzeari eta zaintzeari buruzko neurriak, aldiz, ez dira barnean sar-tzen (horiek Urkiola eta Gorbeialdeko Parke Naturalerako bakarrik dira).

den ser: Label Gernikako Piperra, Gernikako Indaba, Denominación de Origen Bizkaiko Txakolina, Euskal Baserri, Bizkaiko Sagardoa, Consejo Vasco de Producción Agraria Ecológica y distintos labeles ganaderos; por lo que, entre todos, deberán complementarse y respetarse. Siendo de aplicación el reglamento CEE/2078, los productos de Urdaibai se pueden acoger a las líneas generales establecidas al efecto, pudiéndose completar con la posibilidad de utilizar dichos productos una identificación complementaria que facilite la comercialización agraria local.

## — **Fomento de la agricultura ecológica.**

La condición de Urdaibai como única Reserva de la Biosfera de la Comunidad Autónoma del País Vasco le hace ser el lugar idóneo para la promoción de la agricultura ecológica, aspecto a considerar de cara a su apoyo ante proyectos y productos obtenidos con estas técnicas.

## — **Formación dirigida al sector en orden a cubrir las líneas anteriores.**

Precisa para la aplicación de las líneas anteriores que implican un cambio de mentalidad (compatible con el medio ambiente y en cooperación para la transformación y venta) en los baserritarras o una educación para los nuevos que se introducen en la actividad. Por otro lado, es preciso captar las necesidades que pudieran existir en grupos de población específicos (mujeres, jóvenes, etc.) en orden bien a lograr una mayor participación en la formación dirigida al conjunto del sector, bien en la configuración de cursos, seminarios o encuentros más orientados a cubrir dichas necesidades.

## — **Aplicación del régimen de ayudas CEE/2078 de acuerdo a los productos determinados y dedicación del destinatario.**

Utilización del Reglamento CEE/2078 primando las producciones compatibles con la naturaleza y primando a los productores profesionales. Desde 1996 se viene desarrollando en Bizkaia un programa agroambiental bajo el citado reglamento y que incluye a Urdaibai. Las diversas medidas de apoyo se dirigen a la conservación de razas locales de ganado, fomento de la producción agraria ecológica, gestión de tierras para uso público y espaciamiento, conservación de pastos de montaña, conservación del paisaje y entorno del caserío, conservación de marismas y praderas de la ría de Gernika. Todas estas medidas son de aplicación en Urdaibai, excepto la relativa a la gestión de tierras para uso público y conservación (exclusivas para los Parques Naturales de Urkiola y Gorbea).

## 12. MERKATURATZEKO ETA TRANSFORMATZEKO BIDE AMANKOMUNAK ERABILTZEA; HORREK AUKERA EMANGO DU URDAIBAIKO PRODUKTUAK ESKUALDEKO ETA KANPOKO MERKATUETAN SARTZEKO

## 12. ARTICULACIÓN DE MEDIOS COMUNES DE TRANSFORMACIÓN Y COMERCIALIZACIÓN QUE PERMITAN EL ACCESO DE LOS PRODUCTOS DE URDAIBAI AL MERCADO LOCAL Y EXTERIOR



### Deskripzioa-justifikazioa

Produktua esparru nahikoarekin jartzea, produkzio kopurua behartu barik, eta kalitatearen nahiz naturaltasunaren kalterik gabe; horretarako, merkaturatzeko bide berriak egituratu behar dira, ahalik eta onura handiena ateratzeko aurreko jarduketa lerroan tipifikaturiko produktuari. Esperientzia batzuek arrakasta handia izan dute: Lea-Artibaien ezarritakoa (laster Leintz-Gatzagan ere sortuko da) edo Gernikako merkatua bera. Horiek erreferentzi ereduak eskaintzen dituzte. Bertako produktuak (baratzetakoak eta fruta-arboletakoak) merkaturatzeko eta sortzeko zentroen esperientzia praktikoek, hala ere, honexetarako zaitasuna agertzen dute: lehenengo, kalitezko produktuei (baratzetakoak eta fruta-arboletakoak) dagokien kalitatea garatzeko eta, gero, produktuok merkatuan sartzeko.

Zereginotan lana sortzeak, bestalde, irtenbidea aurkitu ahal die sektorean baztertuta dauden taldeei (emakumeak, gazteak).

### Descripción-justificación

La colocación del producto, con margen suficiente, sin necesidad de forzar los volúmenes productivos en detrimento de la calidad y naturalidad precisa de configurar nuevos canales de comercialización, que saquen el mayor partido posible al producto tipificado en la línea de actuación anterior. Experiencias como la implantada en Lea-Artibai y de próxima creación en Leintz-Gatzaga, o el propio mercado de Gernika, proporcionan pautas de referencia. No obstante, las experiencias prácticas de estos centros de producción y comercialización de productos hortofrutícolas artesanales muestran la dificultad, primero, de desarrollar un «saber hacer» propio de productos hortofrutícolas de calidad y, segundo, de la introducción de los mismos en el mercado.

La creación de empleos en estas tareas puede reportar salidas a colectivos desfavorecidos en el sector (mujeres, jóvenes).

## Garapen proposamenak

### — **Produkzio aztertzea, azpisektore produktiboen, eskariaren, merkataritza egituren eta merkatu estrategien arabera.**

«Urdaibai» produktuen merkaturako salmenta artikulatzeko, beharrezkoa da produkzioen eta azpisektoreen azterketa nahiz balorazio zehatza edukitzea, baita eskaia, merkaturatze egitura eta merkatu estrategiak ere. Aldagari horiek ezagututa eta benetako beharrizanak egiaztu ondoren, egoera horretatik nola irten jakin beharko da, dauden merkaturatze egiturak aprobetxatuz edo egitura berri batzuk sortuz. Kontuan izan beharko dugu, merkaturatzeko prozesu askok banatzeko, egiteko eta transformatzeko bide nahiz estrategi bereziak dituztela.

Hasierako azterketa egin ondoren, eta beharrezkoba da, entitate bat planteatuko da. Entitate horrek produkua banatuko du bertako zein kanpoko merkatuetan, eta irudi antolatua nahiz merkaturako irudia izan beharko du (Transformaziorako Nekazaritza Elkartea —T.N.E.—, cooperativa, etab.). Entitate hori bazkideek eurek kudeatuko dute. Gainera, landutako produktuak sortzeko, entitate horrek fabrikazio moduak edukitzea planteatuko du. Esperientzia interesgarria da Laneko izeneko enpresak (Gizaburuaga) Lea-Artibaien egin duena; bazkideentzat eta eskualdeko beste produktu batzuetarako lan egiten du: barazkiak eta frutak prestatu, transformatu eta saldu egiten ditu (sagardoa, marmeladak, etab.), eta producto ekologiko asko sortzen ditu. Kasu honetan, kooperativita horren baliabideak erabil daitezke hasteko, eta gero horiek osatu. «Laneko» marka bera erabil daiteke, kalitatezko artisautza produktuen identifikazio marka bereizgarriak ez bideratzeko; marka horren azpian, berriz, lehengaia-ren jatorriaren adierazleak egongo dira (Laneko/Lea-Artibai, Laneko/Urdaibai).

### — **Bertako merkatuak eta salmenta guneak indartzea.**

Gernika eta Bermeok merkatu-ahalmen handia dute, biztanle asko dituzte eta. Izen ere, Gernikako asteroko merkatuak indar handia dauka, eta bertan salerosle ugari biltzen da. Bestalde, bertako produktuekin denda txikietan egin diren esperientziek (Mendata Urdaibairen barruan, edo Lastur, Zerain eta Errezil Gipuzkoan) extrapolatzeko moduko erreferentziak eman ditzakete, kontuan izanda bisitariak eta turistak ere horietara hurbiltzen direla.

## Propuestas de desarrollo

### — **Análisis de la producción por subsectores productivos, demanda, estructuras comerciales y estrategias de mercado.**

Para articular la venta a los mercados de los productos «Urdaibai» es preciso disponer de un análisis y valoración exhaustiva de las producciones y peso específico en los distintos subsectores; así como la demanda, estructuras comerciales ya existentes y estrategias de mercado. Una vez conocidas estas variables y comprobadas las necesidades reales, será preciso plantearse cómo dar salida a las mismas, bien aprovechando estructuras comerciales existentes o configurando otras nuevas, teniendo muy en cuenta que muchos de los productos susceptibles de comercialización tienen ya sus propios canales y estrategias de distribución, elaboración y transformación.

Una vez realizado el análisis preliminar, y si resultase necesario, se plantearía aquella entidad que con la etiqueta Urdaibai efectuara la distribución en el mercado local y exterior, con una figura organizativa y comercial (Por ejemplo: Sociedad Agraria de Transformación —S.A.T.—, cooperativa, etc.) gestionada por los propios socios. Además la misma podría plantearse la dotación de medios de fabricación para la producción de productos elaborados. Una experiencia interesante al respecto se considera Laneko (Gizaburuaga) en Lea-Artibai, que operando para sus propios socios y también para otros productores de la comarca, se dedica a la preparación, transformación y venta de hortalizas y frutas (sidras, mermeladas, etc.), con un componente importante de productos ecológicos. En su caso, podría analizarse la posibilidad de utilizar inicialmente los medios de dicha cooperativa, buscando complementariedades. Cabría utilizar la misma marca comercial «Laneko», completándose, debajo de la misma, con indicaciones de las diferentes procedencias de la materia prima (Laneko/Lea-Artibai, Laneko/Urdaibai), para evitar el riesgo de multiplicidad de marcas identificativas de productos artesanales de calidad sin cantidades críticas suficientes para su reconocimiento e implantación en los mercados.

### — **Reforzar los mercados y puntos de venta locales.**

Puntos como Gernika y Bermeo presentan elevada potencialidad comercial dada la población con que cuentan. De hecho el mercado semanal de Gernika se mantiene en plena vigencia y con elevada asistencia de compradores y vendedores. Por otro lado, las recientes experiencias de pequeñas tiendas de productos locales (Mendata dentro de Urdaibai, o Lastur, Zerain y Régil en Gipuzkoa), con la ventaja de disponer de excursionistas y turistas, pueden reportar referencias extrapolables.

**13. URDAIBAITIK BAXURAKO UNTZIEI  
LAGUNTZEA, JARDUERA ERRENTAGARRIA  
DELAKO ETA INGURUA ERRESPETATZEN  
DUELAKO; HALABER, AKUIKULTURAREN  
GARAPENA ERE BULTZATZEA LEKU  
EGOKIETAN**

**13. APOYO DESDE URDAIBAI A LA FLOTA DE  
BAJURA POR SU CONDICIÓN DE SER UNA  
ACTIVIDAD RENTABLE Y RESPETOUSA CON  
EL MEDIO, ASÍ COMO AL DESARROLLO  
DE LA ACUICULTURA EN LOCALIZACIONES  
ADECUADAS**



**Deskripzioa-justifikazioa**

E.A.E.-n arrantza jarduera garrantzi handikoa da, batez ere Bermeo bezalako Udalerrietan. Jarduera horrek ezaugari hauek ditu: batetik, arrantza arteak erabiltzea; bestetik, lotura handia egotea untzi-jabearen eta arrantzalearen artean gehienetan pertsona bera izaten da. Beraz, jarduera horrek eragin handia du Udalerrriaren baliabideetan, biztanleengan eta lanean parte hartzen duten agenteeetan. Jarduera hori Biosfera Erreserbaren barruan egiten ez bada ere, estuarioa arrantzako espezieak ugaltzeko espazio garrantzitsua da; nolanahi ere,

**Descripción-justificación**

La importancia de la actividad pesquera en el conjunto de la C.A.P.V. es innegable y se hace especialmente importante en municipios como Bermeo. Esta se caracteriza por la utilización de artes tradicionales y la importante vinculación entre el propietario del buque y el pescador —que normalmente, son el mismo—. Se trata, por tanto, de una actividad de alta implicación entre los recursos del municipio, sus pobladores y los agentes que participan en la faena. Aunque esta actividad no se desarrolla dentro del ámbito físico de la Re-

uren kalitatea hobetu ahala, beraren gaitasuna ere hobetu egindo da.

Jarduera horren errentagarritasuna eta beroren gerorako bidegarritasuna zalantzan jarri dira luzaroan (murrizketa zorrotzak untzieta, etab.); baina orain, gaitasuna egonkortu ondoren, badirudi garapen eusgarriaren aldeko apustua egiteko garaia dela (arrantza baliabi-deen araberako garapena). Horretarako, beharrezkoa da formula batzuk garatzea, lanbide honek gazteak era-kartzeko; izan ere, gaur egun gazteek nahiago dute beste jarduera batzuetan ibiltzea edo kanpora joatea (arazo hori nabarmen igartzen da Urdaibaiko portuetan).

Bestalde, eta arrantza stock-ak gutxitzen ari direla ikusita, elikagai hori akuikulturak emango du nahitaez; halaber, diru-sarrera ugari ere ekarriko die kostaldeko udalerriei. Horri dagokionez, itsasertzeo uren baldintzak egokienak dira akuikultura erabiltzeko; baina, horretarako, bermatu egin beharko da (proiektu zehatzten ezaugarriak kontuan hartuta) arriskurik ez dagoela eta inguruaren kalitateari eusten zaiola.

## Garapen proposamenak

### — *Baxurako untzien alde egitea.*

Jarduketa hori E.A.E. osoan burutu beharko da, eta garrantzi handia du Urdaibaien, bertan jende asko babil jarduera horretan. Untzi horiei laguntza eman behar zaie, tradiziokoak baitira, eragin txikiagoa baitute stock-ean (errespetu gehiago) eta horretan diharduten portu nahiz biztanle guneen alternativa ekonomikoa baitira.

### — *Akuikultura garatzea.*

Gero eta gehiago eskatzen dira haztegietako especiesak; horrek, orain dauden laguntza publikoak ere kontuan hartuz, aukera ematen du itxaropen handiak izateko jarduera horretan. Haztegietarako gomendatzen diren espezieei dagokienez, ostra eta txirla daude moluskuen artean, eta erreboiloa, izokina eta izokin itxurako arrankaria arrainen artean (aingira eta eskailua haztearen aldeko iritzia ere jaso dira). Urdaibaien planteatu ahal diren proiektuen bideragarritasun ekonomikoa (kontuan izanda, gero eta lehiakortasun handiagoaren eraginez, prezioek behera egiten dutela) eta ingurugiroarekiko bateragarritasuna, bestalde, horiek implementatu baino lehen kontrastatu beharko dira. Horri dagokionez, badirudi itsasertza dela alderik egokiena.

serva de la Biosfera, el estuario constituye potencialmente (mejorando su aptitud según mejoren la calidad de sus aguas) un espacio importante para la reproducción de especies pesqueras.

Después de un periodo relativamente largo de descenso en el crédito hacia la rentabilidad de la actividad y sobre la viabilidad de su futuro, con rigurosos recortes en la flota, etc. parece que una vez estabilizada la capacidad, es el momento de apostar por una desarrollo sostenible y acorde a los recursos pesqueros disponibles. Para ello es preciso desarrollar fórmulas que hagan atractivo a los jóvenes esta ocupación, con una situación actual en la cual se opta por otras actividades o la emigración (cuestión que en los puertos de Urdaibai se ha detectado).

Por otro lado, y ante la disminución de los stocks pesqueros, la acuicultura se va a convertir forzosamente en suministradora de este alimento y una nueva fuente de ingresos en municipios costeros. En este sentido, las condiciones de las aguas del litoral son idóneas para su aprovechamiento, siempre que atendiendo a las características de los proyectos concretos, pueda garantizarse la ausencia de riesgos y mantenimiento de la calidad del medio en el cual se ubiquen.

## Propuestas de desarrollo

### — *Apuesta por la flota de bajura.*

Es una acción que se está desarrollando en el marco general de la C.A.P.V. con gran trascendencia para Urdaibai, que cuenta con un censo importante de esta flota. Se plantea la necesidad de un apoyo decidido a esta flota, basado en su tradición, menor impacto en el stock (más respetuosa) y alternativa económica para los puertos y núcleos poblacionales que a ello se dedican.

### — *Desarrollo de la acuicultura.*

Los escenarios de demanda de especies cultivadas son netamente favorables, aspecto que junto a las ayudas públicas existentes, permiten abrigar buenas expectativas para esta actividad. Entre las especies recomendables para cultivo se encuentran la ostra y la almeja entre los moluscos y el rodaballo, salmón y trucha asalmonada entre los peces (se han recogido opiniones en favor del interés del cultivo de la anguila y pescado). La viabilidad económica (teniendo en cuenta la creciente competencia, con descenso en los precios) y la compatibilidad ambiental de los proyectos que pudieran plantearse en Urdaibai, ha de ser contrastada previamente a su implementación. En este sentido, la franja litoral parece ser la zona más propicia.

**14. PORTUAN MERKATUKO JARDUERAK  
DINAMIZATZEA ETA BAXURAKO FLOTAREN  
DIRU-SARRERAK HANDITZEA, PRODUKZIOA  
NORMALIZATZEN DUEN SISTEMA EZARRIZ**

**14. DINAMIZAR LA ACTIVIDAD COMERCIAL  
EN PUERTO E INCREMENTAR LOS INGRESOS  
DE LA FLOTA DE BAJURA A TRAVES DE  
LA IMPLANTACIÓN DE UN SISTEMA  
DE NORMALIZACIÓN DE LA PRODUCCIÓN**



**Deskripzioa-justifikazioa**

Urdaibaiko eremuan egunero lehorratzen den merkantzi kopuruak ez dauka behar besteko ekarpenik eta barietaterik. Hau da, ez da behar beste arrain sartzen, eta sartzen denaren barietatea ere ez da nahikoa, artekari nagusiek salmenta puntutzat hartzeko. Erosle gutxiago egotean, prezioak ez dira hain onak.

Harrapaketak lehorreratu eta gero, produktua baloratzeko prozesua hiru fasetan banatzen da:

1. Aurkezpena: garbitasuna, haritzaketa, erdiontzizratzea, etab.

**Descripción-justificación**

El volumen de desembarcado en el área de Urdaibai carece de suficiente aporte diario y variedad en el mismo. Es decir, no se mueve ni suficiente pescado ni en un variedad importante como para constituirse en un punto de venta de interés para los principales intermediarios. El resultado del menor número de compradores es la obtención de peores precios.

Una vez que se ha desembarcado la captura, el proceso de valorización del producto se establece en tres fases:

1. Presentación: limpieza, fileteado, semi-envasado, etc.

2. Banaketa: merkatuetarako sarrera, irteera azkarra eta temperaturari eustea, etab.
3. Salmenta guneak: produktuak bereiztea, baina ez preziotik bakarrik; jatorrizko arrantzaren garranzia, produktua inguru zainduetan aurkeztea, irekitzeko orduak, bezeroari zerbitzua emateko prest egotea.

Arraina kalitatezko produktua da berez, baina garantzi gutxi ematen zaio bezeroari aurkezten zaionean. Produktua aurkeztekó formulak erabili behar dira (lonjatik bertatik aurkeztu ere), aurkezen onena lortzeko produktua ahalik eta gutxien manipulatuta. Aurkezenaren garraitzia erosteko joeren aldaketekin lotuta dago: gero eta kide gutxiagoko familiak dira, denbora gutxiago dute, ez dute egunero erosten, etab.

Gainera, erabilitako arte mota eta berorren jatorria erlazionatu behar dira, produktu baten balioa beste bataren aurrean handitzeko elementutzat.

## Garapen proposamenak

### — **Untziak erakartzea Bermeoko lehorreratzeak gehitzeo.**

Zenbat eta untzi gehiago, arrain gehiago. Arrain kopuru handiagoa erakarriko duten formulak identifikatu eta aplikatzea, Bermeo salmenta gune interesgarri bihurtzeko (erosleak erakartzea eta, ondorioz, harrapatetarako eta portuko jarduerarako prezioak hobetzea).

### — **Diru-sarrerak handitzea, produktuaren balorazioaren ondorioz.**

Arrainaren helmugak eta erabilera libertsifikatzea; orain arte balio gutxi izan duten espezieak horrenbeste ez baztertzea; urteko lanaren epealdia luzatzea.

### — **Arrainaren kalitatea sustatzea.**

AZTI institutuak Baxurako Arrantza merkaturatzeko Sistema Normalizatua diseinatu du, eta sistema hori Euskadiko arrain produkzio osorako da. Sistema horren helburua arrantzaren produkzioaren kalitatea sustatzea da, erabilitako jatorriari eta arteei lotuz. Hori guztia, berriz, merkatuan bereizketa lortzeko bidea da. Horri dagokionez, ezinbestekoa da Sistema hori sendo bultzatzea Urdaibaiko Baxura Sektorean ezartzeko. Izan ere, Sistema hori Baxurako Euskal Arrantza Sektoreko trakzio elementua da.

2. Distribución: acceso a los mercados, salida rápida y conservación de la temperatura, etc..
3. Puntos de venta: diferenciación de los productos más allá del precio, importancia de la pesquería de origen, presentación en entornos cuidados, horarios de apertura, disponibilidad hacia el cliente.

El pescado es, en sí mismo, un producto de calidad al que, sin embargo, se presta poca atención en su presentación frente al consumidor. Se hace necesario incorporar fórmulas de presentación del producto desde la propia lonja que suponga el mínimo manipulado para conseguir la mejor presentación. La importancia de la presentación se liga con los cambios en los hábitos de compra a los que se asiste desde la propia sociedad: se trata de familias con menor número de miembros, que disponen de menos tiempo, que no realizan compra diaria, etc..

Pero además hay que vincular el origen y el tipo de arte utilizado como elementos revalorizadores de un producto frente a otro.

## Propuestas de desarrollo

### — **Atracción de flotas para incrementar los desembarcos en Bermeo.**

Más flotas, más pescado. Identificar y aplicar fórmulas de atracción de mayores volúmenes de pescado que hagan de Bermeo un punto de venta de interés (atracción de compradores y en consecuencia, mejores precios para la captura y para la propia actividad del puerto).

### — **Incremento de los ingresos por la valorización del producto.**

Diversificar los destinos y utilizaciones del pescado, disminuyendo los descartes de especies de hasta ahora poco valor comercial y ampliando el periodo de ocupación anual.

### — **Fomento de la calidad del pescado.**

El instituto AZTI ha diseñado para el conjunto de la producción pesquera de Euskadi un Sistema Normalizado de Comercialización del Pescado de Bajura, al objeto de promover la calidad de la producción pesquera vinculándola al origen y al tipo de arte utilizado, como medio para lograr una diferenciación en el mercado. En este sentido se hace necesario apoyar firmemente la implantación de este Sistema en el Sector de Bajura de Urdaibai, como elemento tractor del Sector Pesquero Vasco de Bajura.

— **Denda txikien bidezko banaketa bultzatzea, baita salmenta eredu berriak ere, produktuari balio erantsi handiagoa emanez.**

Arrain freskuaren salmenta bultzatzea, kontsumitzai-letik huribileko salmenta; hori betiko arraindegienaren bidez artikulatuta dago. Halako arraindegiek kalitatezko estandarrak ekaintzen dituzte, baina erosteko modu berrietara (ordutegiak) eta beharrizanetara (aurkezpena, hariztaketa, etab.) moldatu beharko dute. Banaketa formula batzuk armadore bat edo gehiago merkataritza zentro handi baten bazkide izatean oinarritzen dira, baina formulok ez dira egokitzat hartzen baxurako untzieta-rako. Arrantza sektorearen eta denda txikien arteko banaketa formulak eta elkartea ezarri beharko dira, merkatura moldatu ahal izateko. Produktuari balio erantsi handiagoa emango dioten salmenta eredu batzuk ere ikertu eta ezarri behar dira.

— **Potenciar la distribución a través de comercios minoristas, así como nuevas modalidades de venta otorgando un mayor valor añadido al producto.**

Apostar por la venta en fresco y cercana al consumidor, articulada a través de la pescadería tradicional, establecimiento que aunque ofrezca ciertos estándares de calidad y atención debe de acomodarse a los cambios que se producen en los hábitos de compra (horarios) y necesidades (presentación, fileteados, etc.). La existencia de fórmulas de distribución que consisten en asociarse uno o más armadores a una gran superficie comercial no se acaba de ver como satisfactoria para la flota de bajura. Se trataría de establecer fórmulas y alianzas de distribución entre el sector pesquero y el comercio minorista especializado, actuando en este para su adaptación al mercado. También se han de estudiar y establecer otras modalidades de venta que proporcionen mayor valor añadido al producto.

## 15. ARRANTZA ENPRESEK BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA IZATEA, GARAPEN EUTSIGARRIKO INGURU BATEAN

## 15. VIABILIDAD ECONÓMICA DE LAS EMPRESAS PESQUERAS EN UN ENTORNO DE DESARROLLO SOSTENIBLE



### Deskripzioa-justifikazioa

Euskadiko arrantza enpresen errentagarritasunean eragiten duten faktoreak asko dira, baina horietako bat nabarmendu behar da: Europar Batasunak Kantauriar itsasoko beste Erkidegoetan arrainuntziak egiteko ematen dituen laguntza handiagoak. Kantauriar itsasoko er-tzetako beste flotak Euskadiko flotekin lehiatzen dira, kala nahiz merkatu berdinian eta espezie berdinian. Horrek guztiak kalte egiten dio hemengo armadoren, untziolen eta industria laguntzailearen lehiatzeko gaitasunari, eta eragin kaltegarria dauka Euskadiko kostaldeko herrien ekonomian, horiek arrantzatik bizi dira-eta.

Horri dagokionez, ezinbestekoa da erakundeen arteko eta sektoreetako hausnarketa prozesu bat egitea,

### Descripción-justificación

Varios son los factores que inciden en la rentabilidad de las empresas pesqueras vascas, destacando particularmente los mayores niveles de ayuda que autoriza la Unión Europea para la construcción de buques pesqueros en las otras regiones de la Cornisa Cantábrica, cuyas flotas compiten con la vasca en los mismos caladeros, con las mismas especies y en los mismos mercados, lo que menoscaba la capacidad competitiva de nuestros armadores, de nuestros astilleros y de nuestra industria auxiliar, e inciden negativamente en la economía de los pueblos costeros de Euskadi altamente dependientes de la pesca.

En este sentido, se hace preciso un proceso de reflexión interinstitucional y sectorial, para sentar las ba-

sektorearen etorkizuneko garapenaren oinarriak ezar-  
tzeko, gaur eguneko joera kezkagarria konpontzeko eta,  
etorkizunean, jarduera hori modu jarraian mantentzeko.

## Garapen proposamenak

### — *Flota modernizatzea.*

Flota modernizatzea teknología hobetzena eta arteen  
eraginkortasun handiagoa lortzena bideratuta dago (Eu-  
ropar Batasunak ahalbidetzen duenaren arabera). Mo-  
dernizatze hori bide bat izan daiteke flotaren jarduera  
maila handitzeko eta, hortaz, parte hartzen duten guz-  
tien errentagarritasun ekonomikoaren estandarrak ho-  
betzen (armadorea, marinela, ...).

### — *Untziak egiteko mekanismo sustatzaileak.*

Euskadiko untziolen erakargarritasuna lagundu eta  
bzikortuko duten mekanismoak ezarri beharko dira. Ho-  
ren helburua arrantza untziak egitea da, bultzada handi  
bat emateko flota berritzeari. Baldintza hobeak dituzten  
untziak edukitzeak, bestalde, bigarren eskuko untzietan  
armadore berriak egotea ahalbidetuko du (jardueran  
sartuko dira, formula merkeagoen bidez).

### — *Prototipo-eraginkortasun produktibo binomiari buruzko gogoetak egitea.*

Beharrezkotzat hartzen da sektorea eta untzien pro-  
totipoen zehaztasunak aurrez aurre jarriko dituzten go-  
goetak egitea, aurreiritsi nahiz aurretiazko muga barik  
eta beharrezko berme guztiak (untziaren diseinua, so-  
toa, ohiko koadro adierazlea, ...). Horiek, berriz, flotaren  
berrikuntza eta teknología modernizatzearren prozesua  
bideratuko dute. Horren guztiaren ondorioz, flotaren era-  
ginkortasun produktiboa eta errentagarritasun ekonomi-  
koa optimizatuko dira, eta horrek ondorio positiboak  
izango ditu parte hartzen duten agenteen artean. Gaine-  
ra, beti errespetatuko dituzte elkartearren mugak (garan-  
pen eutsigarria), hau da, aplikatu ahal zaizkionak.

ses del desarrollo futuro del Sector, corregir la preocu-  
pante tendencia actual y posibilitar un mantenimiento  
continuado de su actividad en el futuro.

## Propuestas de desarrollo

### — *Modernización de la flota.*

La modernización de la flota orientada hacia la mejo-  
ra tecnológica y la mayor eficacia de las artes (en la me-  
dida en que lo permita la Unión Europea) podría consti-  
uir una vía para incrementar el nivel de actividad de  
esta flota y por tanto, mejorar sus estándares de renta-  
bilidad económica para todos los partícipes (armador,  
marinero-mareaje,...).

### — *Mecanismos estimuladores para la construcción de buques.*

Sería necesario establecer mecanismos que apoyen  
y estimulen el atractivo de los astilleros vascos para la  
construcción de embarcaciones pesqueras en el marco  
del nuevo impulso a la renovación de la flota. Este es-  
cenario de acceso a nuevos buques en mejores condi-  
ciones propiciará también la aparición de nuevos arma-  
dores sobre buques de segunda mano (entrada en la  
actividad desde fórmulas menos gravosas).

### — *Reflexión en cuanto al binomio prototipo-eficien- cia productiva.*

Se entiende como necesario abrir una amplia re-  
flexión que posibilite al sector enfrentarse, sin comple-  
jos ni limitaciones previas y con suficientes garantías, a  
la determinación de los prototipos de buques (diseño  
del barco, bodegas, cuadro indicador tipo,...) que permi-  
tan orientar la renovación de su flota y su proceso de  
modernización tecnológica. Como consecuencia se op-  
timizará su eficiencia productiva y por tanto su rentabi-  
lidad económica con evidentes efectos positivos en to-  
dos los agentes implicados y siempre respetando las li-  
mitaciones comunitarias (desarrollo sostenible) que, en  
su caso, le sean de aplicación.

## 16. PORTUAK ANTOLATU ETA HOBETZEA, ETA JOLASTEKO-UNTZIEI LEKUA UZTEA

## 16. ORDENACIÓN Y MEJORAS EN LOS PUERTOS, PROPORCIONANDO TAMBIÉN ESPACIOS PARA EMBARCACIONES RECREATIVAS



### Deskripzioa-justifikazioa

Bermeoko portuak hiru flota mota ditu: arrantzakoa, merkataritzakoa eta jolastekoa. Bistan da bertako azpiegitura flota bakoitzaren beharrizanen arabera antolatu behar dela. Antolamendu horrek, batuetan, flotara dedikaturiko espazioak (dartsenak) gainditzen ditu, eta alboko zerbitzuen kokaeran ere eragina dauka (konponketak, tresnak, etab.); zerbitzuok kaien ondoan egoten dira (aparkalekuak, ibiltzeko guneak, etab.). Antolamendua aplikatuta, eskari guztia betetzeko aukera egongo litzateke. Era berean, interesgarria izango da, atununtzirozgailuak eta kabotaje untziak erabiltzeko espazioak gaitzea, arrantzarekin eta kabotajearekin lotura duten jarduera berrietarako konponketak egitea, eta mugakide den zoru industrialari ere lekua egitea. Jolasteko jarduerari dagokionez, mota horretako ehun bat untzi daude

### Descripción-justificación

El puerto de Bermeo abriga a tres tipos de flota: pesquera, mercante y recreativa. La necesidad de ordenar el uso de la infraestructura en función de las necesidades de cada flota es un hecho. Esta ordenación va, en ocasiones, más allá de los espacios dedicados a la flota (dársenas), incidiendo en la ubicación de los servicios conexos (reparación, utilaje, etc.) y en los usos de los muelles (aparcamientos, zona de paseo, etc.). Aplicando la ordenación sería posible responder a todas estas demandas. Resultaría de interés también el obtener espacios para servicio de la flota de atuneros-congeladores y tráfico de cabotaje, reparaciones para nuevas actividades relacionadas con la pesca, cabotaje, reparaciones, además de suelo industrial en espacios limítrofes. En cuanto a la actividad recreativa, habitualmente unas

portuan. Beste untziatarako oso egokia ez den aldea uzten zaie (porto zaharra); horrela, bertan hirugarren sektoreko jarduerak hasi ahal dira eta, gainera, Urdai-baien ingurugiroan eraginik ez duen instalazio bat sor daiteke. Antolamenduak portuko jarduera handitzeko, beharrezkoa da erabiltzaileentzako erakargarri bihurtzea eta merkantziak helmugara eramateko kostuak merketzea. Hortaz, kanpoko konexioa hobetu beharko da, komunikazio azpiegitura bizi, azkar eta erosoa sortuz.

Bermeon ezezik, Elantxoben ere jolasteko erabilerak ezar daitezke (oraintxe edo gerora begira); bertako portuko antolamendua egin beharko da, kontuan izanda arrantza erabilerek izandako atzerakada. Jarduketa biek eskaintza nautikoak (maila txikian) izateko aukera emango dute; horretarako, gaurko azpiegiturak erabiliko dituzte, guneetara integraturiko azpiegiturak. Azpiegiturok, beste alde batuetan antolaturiko amarrekin osatuta, mota honetako baliabide turistikoak emango dizkio-te Urdaibairi, betiko ereduetara ez jotzeak ematen duen balore erantsiarekin. Uren kalitatearen hobekuntza (Urdaibaien saneamendu integrala dago beste jarduketa le-ro batean sartutako gaia) portuko espazioetan islada-tzen da (Bermeoko kasua).

Elantxoben arazo nagusia malda hondatzea da (errepideari eragiten dioten lur mugimenduak daude eta haitzak hiri gunera erortzen dira); faktore oso negatiboa da udalerri horren etorkizunerako. Herri horrek berez ditu arazoak espacio falta dela eta.

Arrantza jardueren segurtasunak, bestalde, Bizkaiko kostalderako atoi-untzi bat egotea justifikatu du luzaro. Zerbitzu hori gaur egun zalantzhan jartzen ari dira; izan ere, kostalde osorako hurbilen dagoen zerbitzua Santanderren dago. Egoera horren ondorioz, segurtasuna eta zerbitzuaren eraginkortasuna murrizten dira, eta hori ez du flotaren garrantziak (kopuruari dagokionez behintzat) justifikatzen.

Gainera, Bermeon ez dago Itsas-etxerik eta hori ai-patzekoa da; horrek zerbitzuak eskainiko lizkioge flotari portutik bertatik, eta aukera emango luke bai portuaren zerbitzua osatzeko eta bai portu horrek lehorreratz gu-netzat duen posizioa hobetzeko. Portuak balioaniztasunerako duen joerak hiru flota izatea justifikatzen du; horrela, bete egiten da kirol flotarako zerbitzuek sarritan izaten omen duten urritasuna.

## Garapen proposamenak

### — Portuko jarduerak antolatzea Bermeon.

Bermeon lotu ahal diren hiru flotek sorturiko jardue- ren garrantzia dela eta, justifikatuta dago eurak antola-

cien embarcaciones de este tipo se encuentran en el puerto. La asignación del mismo a la zona menos apta para el resto (puerto viejo) puede permitir el crecimiento de las actividades terciarias en el mismo, además de contribuir a dotar a Urdaibai de una instalación sin impactos ambientales. Para que la ordenación tenga reflejo en el incremento de actividad del puerto, es preciso hacerlo atractivo a sus usuarios y reducir los costes de transporte de las mercancías hasta su destino. Por ello se precisa mejorar la conexión exterior mediante infraestructuras de comunicación ágiles, rápidas y cómodas.

